

Gizarte Ekimeneko patronalei Lanbide Heziketan eta Haur Hezkuntzako lehen zikloan tutoretza plusa ordain dezatela galdegiteko elkarretaratzea egin dugu ELA, STEILAS eta CCOOek epaitegi aurrean

29 greba egunen bitartez lortutako edukietako bat da, Lan Hitzarmenean jasota dago eta patronalek bete behar dute

Gatazka gogor eta luze baten ondoren eduki garrantzitsuak eta bikainak jaso zituen Greba amaierako akordio bat lortu genuen Gizarte Ekimeneko ikastetxeetan 2019ko Azaroan. Behin greba amaierako akordio itxi ondoren, Lan Hitzarmenaren erredakzio lanak ere gogorrak izan ziren, adostutako edukiak eta terminoak berrikusi eta aldatzeko patronalen ahaleginak etengabeak izan zirelako.

Halere, 2020ko uztailean Lan Hitzarmen bikaina sinatu genuen, urte bereko apirilean argitaratu zena EAEko aldizkari ofizialean.

Lan Hitzarmen honek argi eta garbi jasotzen du tutoretza plusa Gizarte Ekimeneko ikastetxeetako etapa guztietako tutoretza lana gauzatzen duten profesionaleri ordainduko zaiela. Izan ere, aurreko hitzarmenak ez bezala, 2020an sinatutakoak ez baitu etaparik ordainketa horretatik kanpo uzten.

Patronalek ordea, sinatutakoa betetzeari uko eginez, Lanbide Heziketa eta Haur Hezkuntzako lehen zikloko profesionalak tutoretza plusaren ordainketatik kanpo utzi nahi ditu. Saiakera horretan ikastetxeei plus hau ez ordaintzeko aholkatu diete, ikastetxe batzuk jadanik ordainketa gauzatzen hasiak baziren ere. Sindikatuok gaia epaitegietara eramateko erreklamazioak aurkezten hasiak giñela, Patronalek gatazka kolektibo bat aurkeztu zuten.

Gaur izan da tutoretza plusaren inguruko epaiketa EAEko auzitegi Nagusian. ELA, STEILAS eta CCOOek argi daukagu tutoretza plusaren ordainketa etapa guztietako profesionaleri dagokiela. Hala sinatu genuen hitzarmenean eta hori da bai epaitegietan, gure zerbitzu juridikoen bitartez, eta bai kalean, epaitegi aurrean egindako elkarretaratzeren bitartez, gaur defendatu duguna.

Epaitegiak ez direla erratuko uste dugu. Halaber, argi daukagu ere, epaitegiek esanak esan, etapa guztietarako tutoretza plusa jasotzeko eskubidea adostu genuela Lan Hitzarmenean eta honen defentsa gauzatuko dugula gure esku dauden bide guztien bitartez.

Euskal Herrian 2021eko Abenduak 2an.



Concentración de ELA, STEILAS y CCOO ante el juzgado para exigir a las patronales de centros de enseñanza de Iniciativa Social que paguen el plus de tutoría en Formación Profesional y primer ciclo de Educación Infantil

Es uno de los contenidos obtenidos gracias a los 29 días de huelga realizados en el sector, está recogido en el Convenio firmado y las patronales lo deben cumplir

Tras un duro y largo conflicto, en noviembre de 2019 conseguimos cerrar un acuerdo de fin de huelga con importantes y excelentes contenidos para los centros de enseñanza de Iniciativa Social. Una vez cerrado el acuerdo de fin de huelga, la fase de redacción del Convenio fue también muy costoso debido a la constante obstinación de las patronales por tergiversar y modificar los términos de lo acordado.

Con todo, en julio de 2020 firmamos un excelente Convenio que se publicó en abril del mismo año en el Boletín Oficial del País Vasco.

Este Convenio Colectivo recoge claramente que el plus de tutoría se abonará a los profesionales que ejerzan la labor de tutoría en todas las etapas de los centros de enseñanza de Iniciativa Social. Y es que, a diferencia del anterior convenio, el firmado en 2020 no excluye ninguna etapa de este pago.

Las patronales, sin embargo, negándose a cumplir lo firmado, quieren excluir del pago del plus de tutoría a los profesionales de Formación Profesional y primer ciclo de Educación Infantil. En este intento han aconsejado a los centros que no paguen este plus, a pesar de que algunos ya habían comenzado incluso a hacer efectivo el pago. Una vez los sindicatos comenzamos a presentar reclamaciones de cara a reclamar el plus ante los tribunales, las patronales presentaron un conflicto colectivo.

Hoy ha tenido lugar en el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco el juicio sobre el plus de tutoría. ELA, STEILAS y CCOO tenemos claro que el pago del plus de tutoría corresponde a profesionales de todas las etapas. Así lo firmamos en el convenio y eso es lo que hemos defendido hoy tanto en los juzgados, a través de nuestros servicios jurídicos, como en la calle, a través de la concentración que hemos llevado a cabo ante el juzgado.

Creemos que los tribunales no se equivocarán. Ahora bien, también tenemos claro que, digan lo que digan, acordamos en el Convenio Colectivo el derecho a percibir el plus de tutoría para todas las etapas y que así seguiremos defendiéndolo por todos los medios a nuestro alcance.

En Euskal Herria el 2 de Diciembre de 2021.

